EGK-k Euskadik etorkizuneko belaunaldien ikuspegia bere politika publikoetan txertatzea aldarrikatu du.

- *GoaZen, Euskadiko Oraingo eta Etorkizuneko Belaunaldien Nazioarteko I. Kongresua, Nazio Batuen Erakundeko, Galesko, Flandeseko eta hainbat erakundetako ordezkariak bilduko ditu Bilbon, nazioarteko esperientziak ezagutzeko eta gazteen parte-hartzerako eta eragiteko mekanismo berriak proposatuko dira.*

Bilbo, 2026ko azaroaren 24a. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) GoaZen, Euskadiko Oraingo eta Etorkizuneko Belaunaldien Nazioarteko I. Kongresua, ospatuko du bihar Euskalduna Jauregian, helburu argi batekin: Euskadin hartzen diren erabaki publikoetan belaunaldien arteko ikuspegia nola txertatu eztabaidatzen hastea.

Gaur egun etxebizitzaren, enpleguaren, jasangarritasunaren edo zerbitzu publikoen arloan hartzen diren erabakiek hamarkadetan izango dituzte ondorioak. Hala ere, gazteek eta etorkizuneko belaunaldiek ez dituzte beti erabaki horietan eragiteko behar adina mekanismo.

EGKren ustez, beste urrats bat emateko eta politika publikoek beren ondorioak biziko dituztenengan duten eragina kontuan hartuko duen erakunde-eredu baterantz aurrera egiteko unea iritsi da.

Nazioarteko esperientzietatik Euskadirako proposamenetara

Kongresuak Nazio Batuen Local 2030 Koalizioko, Galesko, Flandeseko, Kanarietako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak bildu ditu. Ordezkariek egungo eta etorkizuneko belaunaldien interesak erakundeen jardunean txertatzeko hainbat esperientzia partekatuko dituzte.

Aztertutako diren ereduen artean Flandriakoa nabarmentzen da, gazteengan politika publikoek duten eragina ebaluatzeko tresnak baititu. Galesko esperientzia ere landuko da, etorkizuneko belaunaldien interesak babesteko garatutako neurriak ezagutzeko.

Jardunaldiak parte-hartzerako gune bat ere izango du. Bertan, gazteek eta gizarte-eragileek proposamenak landuko dituzte, gazteen parte-hartzea eta euskal erakundeetan eragiteko duten gaitasuna hobetzeko.

EGK-k hausnarketatik konpromisoetara igarotzea proposatu du

Bere 40. urteurrenarekin bat eginez, EGK-k GoaZen euskal erakundeekin batera lan-agenda bat abiarazteko abiapuntua izatea nahi du.

Kontseiluak proposatuko gazteengan eta etorkizuneko belaunaldiengan politika publikoek duten eragina ebaluatzeko mekanismo egonkorrak aztertzea, parte-hartzerako guneak hobetzea eta gazteen proposamenek erakundeen erantzuna jasotzen dutela bermatzea.

Jardunaldia Nerea Melgosa Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuaren hitzartzearekin amaituko da.

Informazio gehiago:

Mirene Gonzalez Uriarte

688675932 // 944436143

komunika@egk.eus

EGK reclama que Euskadi incorpore la perspectiva de las generaciones futuras en sus políticas públicas.

- *GoaZen, el I Congreso Internacional de las Generaciones del Presente y del Futuro de Euskadi, reunirá en Bilbao a representantes de Naciones Unidas, Gales, Flandes y diferentes instituciones para conocer experiencias internacionales y plantear nuevos mecanismos de participación e incidencia juvenil.*

Bilbao, 24 de noviembre de 2026. El Consejo de la Juventud de Euskadi (EGK) celebrará mañana en el Palacio Euskalduna GoaZen, el I Congreso Internacional de las Generaciones del Presente y del Futuro de Euskadi, con un objetivo claro: abrir el debate sobre cómo incorporar la perspectiva intergeneracional a las decisiones públicas que se adoptan en Euskadi.

Las decisiones que hoy se toman en materia de vivienda, empleo, sostenibilidad o servicios públicos tendrán consecuencias durante décadas. Sin embargo, las personas jóvenes y las generaciones futuras no siempre cuentan con mecanismos suficientes para influir en ellas.

Desde EGK consideran que ha llegado el momento de dar un paso más y avanzar hacia un modelo institucional que tenga en cuenta el impacto de las políticas públicas sobre quienes tendrán que vivir con sus consecuencias.

De las experiencias internacionales a las propuestas para Euskadi

El Congreso reunirá a representantes de la Coalición Local 2030 de Naciones Unidas, Gales, Flandes, Canarias y el Gobierno Vasco, que compartirán diferentes experiencias para integrar los intereses de las generaciones presentes y futuras en la acción institucional.

Entre los modelos analizados destaca el de Flandes, que cuenta con herramientas de evaluación del impacto de las políticas sobre la juventud, así como la experiencia de Gales en la protección de los intereses de las generaciones futuras.

La jornada incluirá con un espacio participativo en el que personas jóvenes y agentes sociales trabajarán sobre propuestas para mejorar la participación juvenil y su capacidad de incidencia en las instituciones vascas.

EGK plantea pasar de la reflexión a los compromisos

Coincidiendo con su 40 aniversario, EGK quiere que GoaZen sea el punto de partida de una agenda de trabajo con las instituciones vascas.

El Consejo propone explorar mecanismos estables para evaluar el impacto de las políticas públicas sobre la juventud y las generaciones futuras, mejorar los espacios de participación y garantizar que las propuestas juveniles tengan una respuesta institucional.

La intervención de Nerea Melgosa, consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico del Gobierno Vasco dará cierre a la jornada.

Más información:

Mirene González Uriarte

688675932 // 944436143

komunika@egk.eus